# ASMOZ TA JAKITEZ

204

URRIA OCTUBRE OCTOBRE 2009

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA


## Un hito histórico: la Asamblea Municipal de 1919


EL PUEBLO VASCO

EN EL INSTITUTO PROVINCIAL

Apertura de la Asamblea Municipal Vasca

Hablan los señores Elorza, Zuazнávar, Campión y marqués de Lema.

Del 17 al 21 de septiembre de 1919, Eusko Ikaskuntza convocó el primer acto público de su historia: la Asamblea de Administración Municipal Vasca. En un momento de malestar en el ámbito municipal, Eusko Ikaskuntza se propuso “estimular y fomentar el estudio de los problemas municipales de nuestro País: determinar cuáles requieren más urgente solución, así como hallársela adecuada: y, sobre todo, interesar, iniciar o perfeccionar en estos estudios a las personas que por razón de sus cargos públicos (alcaldes, concejales, secretarios y otros funcionarios) están llamadas a intervenir directamente en la gestión de los intereses comunales”.

El éxito de la convocatoria fue considerable, como se observa por la gran repercusión pública que tuvieron sus trabajos. El peso de la asistencia lo llevó Gipuzkoa, con 261 participantes (90 concejales y representantes de ayuntamientos, 68 profesionales, la mayoría vinculados a la administración, 34 componentes de las Diputaciones, 47 secretarios de ayuntamientos, 6 alcaldes, 8 parlamentarios y 8 representantes de asociaciones, colegios profesionales y cámaras de la propiedad); le siguió Bizkaia con 83, Navarra con 38 y Álava con 18. También acudió una representación de los alcaldes del País Vasco de Francia, e incluso de las Diputaciones de Zaragoza y Huesca.

En sus conclusiones, la Asamblea propugnó la reintegración foral, la independencia del municipio frente a la autoridad gubernativa, la separación de las haciendas municipales de todas las demás de carácter público, la libertad de elección de funcionariado y la obtención de facultades para organizar el sistema de enseñanza.

Finalmente, los intereses soterrados de las Diputaciones provinciales, de la Administración Central, así como la falta de un marco autonómico impidieron un avance sustancial hacia una estructura municipal menos conflictiva, tal como se solicitaba en sus resoluciones.

Más información: ATEJOKA 013, pp. 2,3.

## ‘Euskonews’: hamaika urte, 500 ale, milaka irakurle

### La publicación decana y líder en el sector de la prensa cultural vasca en Red celebra su número 500 invitando a reflexionar sobre el porvenir




Joan den irailaren 18an argitaratu zen *Euskonews* astekariaren 500. zenbakia. Argitalpen hau zaharrena eta liderra da Sareko euskal prentsa kulturalaren sektorean. Izaera bereziko argitalpen hau Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademiako sei kideren lankidetzaz burutu da. Horiek gogoeta egiten dute etorkizunaz, nork bere jakintza arlotik: Jose Antonio Garrido (ingeniaria), William Douglass (antropologoa), Enrique Zuazua (matematika aplikatuan aditua), Iosu Zabala (Mondragon Unibertsitateko errektorea), Carmen Mijangos Ugarte (kimikaria).

1998ko irailaren 8an agertu zen *Euskonews*, euskal zientzia, kultura eta gizarteari buruzko lehen *online* aldizkariaren aurreneko alea. Asteko elkarrizketaz eta “Gaiak” atalean bilduriko artikulu nagusiez gain, 2000 urtetik hamabost egunean behingo leiho bat eskaintzen ari zaio arte adierazpenari “Artaretoa” atalaren bidez, eta ondoko urtean eskulanaren sorkuntza erantsi zuen “Artisautza” delakoaren bidez. 2002tik, “KOSMOpolita” atalak tribuna bat eskaintzen du munduan zeharreko euskal aztarna berreskuratu eta zabaltzeko asmoz. Azkenik, “Euskobooks” liburu aukerak, efemerideek eta irrati elkarrizketek osatzen dute aldizkariaren egungo edukien aurkibidea.

*Euskonews Multimedian* elkarrizketak eta grabazioak biltzen dira ikus-entzunezko euskarrian, Eusko Ikaskuntzak Euskomedia Fundazioaren bidez ekoizturiko bideo eta bestelako materialekin batera.

Gainera, 2007ko urtarriletik *Euskonews Gaztea* gehigarria argitaratzen da, gazteek eta gazteentzat egindako aldizkaria. Euskal Herri osoko hainbat ikastetxetako milaren bat ikaslek parte hartu dute aldizkariaren lehenengo 126 aleetan.

2008 urtean, *Euskonews*eko 3.100.000 orri baino gehiago kontsultatu ziren. Era berean, euskal esparruko informazio bolumenari dagokionez, egunerokoak ez diren agerkarietan lehenengoa da Google bilatzailean.

Eusko Ikaskuntzak erakundeen dirulaguntzarik gabe argitaratzen du *Euskonews* aldizkaria eta bere 3.300 bazkidek egiten duten lanaz elikatzen da. Aldi berean, astekaria partaidetzari eta lankidetzari irekitako foroa da, lanen zorroztasun eta kalitate exijentzia beste mugarik ez duela.

## Erakunde Bizitza


(1)


(2)


(3)

### Clúster de electrónica

El 16 de septiembre en Donostia se presentó el informe *Los orígenes históricos del Clúster de Electrónica, Informática y Telecomunicaciones en el País Vasco y su legado para el presente*. Este estudio se enmarca dentro de un proyecto de investigación promovido por Eusko Ikaskuntza y Orkestra - Instituto Vasco de Competitividad con el objetivo de examinar las ventajas competitivas existentes en la economía vasca y su sostenibilidad en el tiempo. El acto contó con la presencia de José Mª Muñoa, presidente de Eusko Ikaskuntza, José Luis Curbelo, director general de Orkestra, y Joseba Ruiz de Alegría, presidente de GAIA.

### Argitalpen Batzordea

Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Eragileak, irailaren 18ko bileran, Mónica Moso (2) eta José Angel Ormazabal (3) Argitalpen Batzordeko kide berri izendatzea onartu zuen.

## Bekak / Becas / Bourses

### Ayudas a la investigación



Como cada año, Eusko Ikaskuntza concede a través de sus Secciones Científicas ayudas económicas para la realización de trabajos de investigación, bien en equipo o individualmente. Los proyectos pueden versar sobre cualquier aspecto relacionado con la cultura vasca siempre que sean inéditos y originales, no constituyendo parte o reflejo directo de otro trabajo en curso por parte del solicitante, subvencionado o no. La dotación no superará los 1.600 euros, y el plazo para la ejecución del trabajo será de un año. Hasta el 30 de noviembre se pueden presentar las solicitudes.

## Fundazioak

### 50 años de EEA

El pasado mes de septiembre, Euskalerriko Eskautak Araba (EEA) cumplió 50 años de existencia. Con tal motivo, la Federación solicitó a Eusko Ikaskuntza la realización de un vídeo documental de 20 minutos de duración. Elaborado por el equipo de Euskomedia Fundazioa, el audiovisual recoge testimonios de casi una veintena de scouts de varias generaciones, y la parte musical corre a cargo del profesor Francisco Ibáñez Irribarria, del conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz.



## Jakiunde

### Conférence

Le linguiste et psychologue belge Jean-Paul Bronckart, l'un des philosophes du langage les plus réputés mondialement, a donné une conférence le 17 septembre intitulée *La influencia del lenguaje en el desarrollo Psicológico (L'influence du langage dans le développement Psychologique)* au sein du Forum Ikerbasque organisé par Ikerbasque et Jakiunde, Académie des Sciences, des Arts et des Lettres. Dans le cadre du Musée Artium de Vitoria et devant un public intéressé, Jean-Paul Bronckart a présenté ses théories sur l'apprentissage de la langue.

JAKIUNDE
ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA

## Ei Gazte!

### Gazteak eta politika

Azaroaren 12an, 18 eta 30 urte bitarteko 150 gazte inguru Donostian bilduko dira Eusko Ikaskuntzak deituta, Gipuzkoako Aldundiaren laguntzarekin, *Parte hartuz erabakitzen duzu* gaiari buruzko jardunaldi bat partekatzeko asmoz. Bilkura honek ibilbide luzeagoko lan baterako abiapuntu izan nahi du; gazteen iritzian etorkizunean beharko litzatekeen gizarte antolaketaren ereduari buruzko hausnarketak sortzea izango luke lan horrek helburu. Era berean, gazteriaren eta arduradun politikoen arteko espazio partekatuak sortzea lortu nahi da.

### Euskara eta gazteria



*Euskara da nire aukera. Zein da zure estiloa?*, horra gazteak protagonista dituen proiektu baten izenburua. Bai baserri giroan nola hiriburuetan, euskararen egoeraz eta hizkuntza horretan bizitzeko aukerez ohartzea eta gogoetatzea da kontua, baita egindako erradiografiak alderatzea ere. Ikerlan soziolinguistikoa ez bada ere, proiektu honen bidez analisi eta ikerketa metodo zientifikoetara hurbiltzea ziurtatu nahi da. Parte hartuko duten taldeek (8-10 gaztek osaturik), euskara analizatuko dute ondoko herri-hirietan: Bilbo, Markina-Xemein, Donostia, Oñati, Gasteiz eta Aramaio.

### Aztarna ekologikoa

Pentsamendu eta behaketarako gaitasunak zein praktika egoki batzuk duten garrantziaz jabetuta, *Ei Gazte!* egitasmoak euskal gazteen artean kontsumo ohituren hobekuntzarako Aztarna Ekologikoari buruzko tailer berri bat jartzen du martxan. Gipuzkoako eta Bizkaiko talde bik Bizkaiko Ander Deuna ikastolaren eta Gipuzkoako Amara Berri ikastetxeko Aztarna Ekologikoaren kalkulura gerturaketa bat egingo dute. Urria eta azaroa bitartean ekimeneko hirugarren urratsari ekingo diote: egindako egoera diagnosia alderatu, gogoeta egin eta ondorioak ateratzeko asteburu batean zehar elkarbizitza egingo dute aterpetxe batean. Ondorio txostena Eusko Ikaskuntzaren Ei Gazte!-ren esku jarriko dute azaroa eta abendua bitartean eta ondoren zabalkunde lana egingo du honek.

## Sariak

### ENE Saria



Abenduaren 3an berriro ospatuko da Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE). Aurreko urteetan bezala, euskararekiko atxikimendu ahalik eta kopuru handiena biltzen saiatuko da, hartarako teknologia berriak erabiliz. Era berean, ENE SARIAk Euskal Herritik kanpoko erakunde bat sarituko du euskara sustatzearen alde egindako lanagatik, dela euskara bera dela haren adierazpenak hedatuz: irakaskuntza, literatura idatzia, ahozkoa, zinea... eta sortze lana. Hautagaiak aurkezteko epea azaroaren 20an amaitzen da.

## Programa Enblematikoak

### Bai, 2009-2010

El Programa Emblemático BAI ha iniciado el curso con un ambicioso plan de trabajo. El Foro de Energía será uno de los que genere más actividad esta temporada, encaminando sus acciones hacia la creación de un núcleo promotor con representantes de distintos sectores de la sociedad. Asimismo, Etorkizun Foroa-Alto Nervión desarrollará un proyecto participativo en cinco municipios de Alava y cuatro de Bizkaia, mientras que el Foro de Movilidad centrará sus esfuerzos en la sensibilización social. Además, el Comité Ejecutivo del BAI prepara un documento ejecutivo del proyecto sobre el Indicador de Progreso Genuino y Duradero.

### G+20, lehen fasea

G+20
Gipuzkoa + 20

Irailaren 24an, +20 Sarearen osoko bilkura bat egin zen Arantzazun. Sare horretan hainbat eragilek esku hartzen dute: Euskal Herriko zenbait unibertsitate, Eusko Ikaskuntza eta Jakiundeko adituak, Batzar Nagusiak, tokiko eta eskualdeko ordezkariak, Gipuzkoa Aurrera, Gipuzkoa Berritzen eta LandaGipuzkoako kideak. Bilera horretan, Eusko Ikaskuntzak eta Jakiundek zuzenduriko G+20 Kontseiluak aurkeztu zuen analisi dokumentuan Gipuzkoako etorkizuneko garapenerako faktore nagusiak zehazten dira.

### Euskal Herria Mugaz Gaindi




Un año más, EuskoSare de Eusko Ikaskuntza participa en la organización del Seminario Internacional Euskal Herria Mugaz Gaindi. En su sexta edición, del 20 al 22 de octubre en Arrasate-Mondragón, tratará sobre "Nuevas perspectivas de investigación" en relación con la diáspora vasca. Una treintena de especialistas debatirán en seis áreas: Historia, Arte, Imagen y cine, Apellidos vascos en el mundo, Presentación de proyectos, y Jóvenes investigadores. También se celebrará una mesa redonda sobre la diáspora en la prensa vasca actual.

## Jardunaldiak, Jornadas, Journées

### Joseba Zubimendiri buruz

Heriotzaren 70. urteurrenaren kariaz, Joseba Zubimendi Martiarena (1987-1939) kazetariari buruzko ekitaldi bat egin zen Donostian, irailaren 28an. Josemari Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzako Zuzendari-Kudeatzaileak aurkezpena egin zuen eta Inazio Mujika idazle eta argitaratzaileak Zubimendiren berri laburra eman zuen. Ondoren, mahai inguru bat egin zen "Euskal Literatura eta Kazetaritza Gerra Zibilaren aurretik" gaiari buruz, Inazio Mujikak eta Javier Diaz Noci eta Lourdes Otaegi irakasleek bertan parte hartu zutela.

### Antropología Marítima

Los días 13 y 14 de noviembre tendrán lugar en Portugalete las VI Jornadas de Antropología Marítima, dedicadas a reflexionar sobre sociedades y culturas marítimas. La Sección de Antropología-Etnografía, organizadora del evento, propone como ejes orientadores tres campos referenciales: *la marina mercante, la pesca y la vida portuaria*. La celebración de las Jornadas en la ETS de Náutica y Máquinas Navales de la UPV-EHU brindará la ocasión de conocer más de cerca su Museo de Anclas, y se presentarán diversas publicaciones dedicadas al tema.

### Zuberoako pastorala

Azaroaren 14an, Barkoxen (Zuberoa) Zuberoako pastoralari buruzko jardunaldi bat egingo da. *Pastorala lehen eta orai: gogoeta zunbait / La pastorale d'autrefois et d'aujourd'hui* izenburuko jardunaldi hau Jean-Louis Davanten hitzaldi batekin hasiko da, pastoralaren historia gaia tratatuko duena. Halaber, mahai inguruak izango dira autoreekin eta eszenako zuzendariekin (*errejentak*). Arratsaldeko ekitaldian XX. mendearen erdian filmaturiko pastoral bat proiektatuko da.

### Littérature et identités

La Section de Langue et Littérature travaille à la préparation d'une Journée qui aura lieu les 26 et 27 novembre à Bilbao. L'événement aspire à créer un cadre où les chercheurs du domaine académique pourraient échanger leurs idées sur la question de la littérature et les identités collectives dans le milieu de la Péninsule Ibérique, aussi bien dans le sens de l'influence de l'identité nationale dans la création littéraire que dans celui de l'utilisation ou de la conceptualisation de la littérature en tant qu'outil ou élément de la construction nationale.

### Proiektika eta krisia

Proiektikaren XV. Jardunaldiak (azaroaren 26 eta 27an, Bidarte eta Donostia) ondoko galderari erantzuten saiatuko dira: *Zer egin dezake Proiektikak krisiaren aurrean?* Abiaburuko analisiari jarraiki, mendebaldeko garapen eredua – "hobeto egin, gehiago egin, merkeago egin"– ez da iraunkorra jadanik. Premiazkoa da maila guztietan berritzea: alderdi tekniko-ekonomikoetan, baina bai antolaketa eta gizarte kontuetan ere. Aurten Proiektika Jardunaldietan landu beharreko alorrak berrikuntza arduratsuaren gizartea eraikitzeari dagozkionak dira.







3digitala: Antxon Aguirre



## Udalak

### Frankismoaren esklaboak




Udan Donostia eta irailean Nafarroako Orbaibar bisitatu ondoren, *Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak Mendebaldeko Pirinioan* erakusketak Bizkaira eta Araba bidaiatuko du Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Izaera historikoaren jabe den eta lekukotasuna ematen duen erakusketa hau ondoko lekuetan ikusi ahal izango da: Amorebieta (azaroaren 2tik 15era), Mungia (azaroaren 16tik 30era), Barrundia (abenduaren 3tik 13era) eta Asparrena (urtarrilaren 11tik 24ra).

### Fiscalidad Sostenible

El Ayuntamiento de Bilbao solicitó a Eusko Ikaskuntza la preparación de un informe sobre Fiscalidad Sostenible con cuatro objetivos: impulsar el progreso genuino y verdadero de Bilbao; dotarse de medidas específicas en época de crisis; emitir las señales adecuadas a la ciudadanía para la reorientación de comportamientos que nos permitan superar la crisis y afrontar el futuro; y adecuar la fiscalidad municipal a las nuevas necesidades. El estudio realiza un diagnóstico de partida y ofrece un catálogo de soluciones específicas y recomendaciones generales.

### 'La bayoneta', nº 3

Le 24 septembre a été présenté à Tolosa le troisième numéro de *La bayoneta. Periódico antinapoleónico de Tolosa (La baïonnette. Journal antinapoléonien de Tosola)*, publication patronnée par Eusko Ikaskuntza, les Archives Municipales et la Comission de la Culture de la ville qui imite le format des feuilles de propagande de l'époque comme moyen de diffuser le riche patrimoine documentaire sur les guerres napoléoniennes gardées par les Archives Municipales de Tolosa. La présentation était animée par Ramón Labayen, ex maire de Donostia et ex conseiller de la Culture de l'exécutif basque, qui présenta une sélection de petits soldats de plomb de sa collection.

### Arte de Agurain

En el marco del convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Agurain-Salvatierra, entre octubre y diciembre el socio Javier Fernández Altuna, crítico y profesor de Arte, va a impartir un ciclo de conferencias sobre Arte y Patrimonio local desde la prehistoria hasta el arte contemporáneo. En cuatro charlas se recogerán las distintas expresiones artísticas situadas en la villa, desde la arquitectura hasta la escultura pasando por la pintura, y transmitir su valor de manera didáctica a un público que no tiene porqué estar familiarizado con estos temas.

## XVII Congreso de Estudios Vascos




**Argibide gehiago:**
http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/congresos/xvii/

### Berriak / Noticias / Nouvelles

**Eusko Entziklopedia**: Badu bi urte Eusko Ikaskuntza entziklopedia handi bat moldatzen ari dela. Laster lan hori eskuragarri izango da Internet bidez. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan horren edukien aurrerapen bat aurkeztuko da.

**Colectivos**: Los Congresos de Estudios Vascos no se plantean sólo como foros de erudición sino también como eventos abiertos a la participación. Para ello, Eusko Ikaskuntza está invitando a los colectivos sociales de Gasteiz para que su labor cobre protagonismo en el marco del Congreso.

**Stands**: Eusko Ikaskuntza et ses fondations Asmoz et Euskomedia disposeront de leurs stands respectifs au siège du Congrès, avec information sur leurs activités.

### El Congreso, desde lo local

Los Ayuntamientos vascos tendrán presencia destacada en el Congreso. El 18 de noviembre se celebrará un taller sobre participación, dirigido a representantes municipales, estructurado en tres partes: un taller participativo, la exposición de experiencias concretas en Bilbao, Gasteiz, Tolosa, Isaba-Burgi, Usurbil e Iparralde y la presentación de conclusiones. Al día siguiente se trabajará sobre proyectos de investigación realizados en Lekeitio, Tolosa y Zarautz. Por último, el 20 de noviembre en el eje de "Memoria Social", la sesión de comunicaciones estará dedicada al tratamiento y recuperación del patrimonio local.

### Argazki lehiaketa

XVII. Kongresua dela eta, *Hiriko banaketak / Porciones urbanas* argazki lehiaketarako deia zabaltzen da. Bertan "Guztionari balio handiagoa ematea" gaiari buruzko argazkiak (gehienez bost autore bakoitzeko) aurkeztu daitezke, espazio publikotzat hirikoa, interpretazio puntua eta arte sormena hartuz. Epaimahaiak lehiaketaren irizpideei hobekien egokituko zaizkien argazkitak baloratuko dituzte, horien kalitate teknikoa eta artistikoa aintzat hartuz. Sari bakarra 1.500 eurokoa da, dagokion diplomarekin batera. Originalak aurkezteko epea azaroaren 1ean amaitzen da.

### 'Gazte Foroa'

Ya se están recibiendo propuestas para el "Gazte Foroa", donde los jóvenes universitarios podrán hacer públicas sus aportaciones relacionadas con cualquiera de los nueve ejes del XVII Congreso. Los interesados deben entregar un resumen del trabajo para el 30 de octubre, para su posterior presentación en el Palacio Europa de Gasteiz, sede congresual. Tras la exposición de los trabajos se debatirá y reflexionará sobre los temas tratados y se harán públicas las conclusiones.

Se premiará con mil euros las mejores propuestas presentadas por jóvenes de entre 18 y 30 años en tres modalidades: documental y ficción, posters y comunicaciones.

**Más información:**
http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/kongresua/sarrera

ASMOZ TA JAKITEZ
204
URRIA OCTUBRE OCTOBRE 2009

## Argitalpenak



### Oihenart, 23

Bilbon 2007an egindako II. Euskal-Erromantze Linguistika Bigarren Jardunaldiak: Ekarpen Berriak ekitaldietan aurkezturiko txostenak argitaratzen ditu *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura* aldizkariaren 23. aleak. Sara Gomez Seibane eta Jose L. Ramirez Luengoren ardurapeko edizio honek 33 azterlan biltzen ditu, eta horietan euskal eremuaren hizkuntza errealitatea deskribatzen da ikuspuntu askotatik, hala diakroniatik nola sinkroniatik, eta bai euskarari bai tokiko gaztelaniari edo bi hizkuntzen mendetako ukipenari dagokionez.



### Bayonne 1808

A l'occasion du bicentenaire de la Constitution de Bayonne élaborée et publiée par Napoléon le 7 juillet 1808, au château de Marracq à Bayonne, un colloque transfrontalier sur *Les origines du constitutionnalisme et la Constitution de Bayonne de 1808*, s'est déroulé les 3 et 4 juillet 2008 à la Faculté pluridisciplinaire de Bayonne. Quatorze éminents spécialistes, dont treize Professeurs d'Université et un Ambassadeur d'Espagne, sept Espagnols et sept Français, sont intervenus devant un public d'une soixantaine de personnes. Ce fut une très belle manifestation, d'une grande qualité.

## Zabalkundea

### Siete emisoras de radio

Se ha iniciado una nueva temporada de los espacios y tertulias sobre temas culturales, sociales y científicos animados por Eusko Ikaskuntza. Este año una nueva radio se suma, Onda Vasca (contando con la periodista Itsaso Guemes), con lo cual son ya siete las emisoras.

La participación está abierta a socios y socias, que pueden sugerir los contenidos (libros, investigaciones, actividades, etc.) a través de la sede de Gasteiz (945-231552, gasteiz@eusko-ikaskuntza.org). ¡Esperamos las propuestas para futuros programas!

| Emisora | Día y hora de emisión |
|---|---|
| Radio Vitoria | Domingos, 22:05-23:00 h.<br>Semanal. En euskara y castellano |
| Herri Irratia-Loyola Media | Sábados, 15:00-16:00 h.<br>Semanal. En euskara y castellano |
| Onda Cero-Navarra | Miércoles, 19:00-19:30 h.<br>Quincenal |
| Euskalerria Irratia | Astearteak, 15:30-16:30 h.<br>Asteroko programa. Euskaraz |
| Bizkaia Irratia | Larunbatak, 13:00-13:30 h.<br>Hamabostero. Euskaraz |
| Radio Euskadi | Miércoles, 11:35-11:50 h.<br>Semanal |
| Onda Vasca | Domingos, 11:00-11:15 h.<br>Semanal |

## Agenda

### Urria / Octubre / Octobre

15: Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona.
Fin de présentation des candidatures



16: Bilbao. Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*

19: Bilbao.
Comienzo del curso SIG Libre

19: Donostia. Zientzia Foroa: Lord Patten of Barnes

### Azaroa / Noviembre / Novembre

2-15: Amorebieta. Erakusketa: Esklabotza Frankismoan

6: Urroz Villa: Conferencia sobre ferias y mercados en Urroz

7-8: Zarautz.
*Aztarna ekologikoaren* ondorio-aurkezpena



7: Bakoxe: Pastorala lehen eta orai: gogoeta zunbait

12: Donostia.
Cultura política: la participación de los jóvenes



13: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

13-14: Portugalete. VI Jornadas de Antropología Marítima

14-15: Hondarribia. *Euskara da nire aukera. Zein da zure estiloa?* tailerraren ondorio-aurkezpena

16-30: Mungia. Erakusketa: Esklabotza Frankismoan

18-20: Gasteiz.
XVII Congreso de Estudios Vascos:
*Innovación para el Progreso Social Sostenible*



20: ENE Saria.
Fin de admisión de candidaturas

20: Gasteiz. Pleno de Jakiunde

26-27: Bidart, Donostia.
XV Jornadas de Proyéctica



26-27: Bilbao. Jornada sobre literatura, historia e identidades nacionales

### Abendua / Diciembre / Décembre

3: Euskararen Nazioarteko Eguna

3-13: Barrundia. Erakusketa: Esklabotza Frankismoan

4-8: Durango.
44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka

11: Iruñea. Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*

11-24: Asparrena. Erakusketa: Esklabotza Frankismoan



**www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda**

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA

**Secretaria de Publicaciones**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 8:30-14:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00-15:00.

**Horario**
De lunes a jueves de 8:30-14:00 y de 15:30-17: 30; viernes de 8:00-15:00.

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

**Horaire**
Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et 15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

Argazkiak:
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa eta 3digitala

L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga